



MEKANIZAZIOKO SOLUZIO OSOAK

KALITATE HANDIA BERMATUTA



Mekanizazioko soluzio osoak

Doitasunezko mekanizaziorako daukazu partnerra

Goimeken espezialistak gara mekanizazioko soluzio osoetan. Esperientzia sendoa daukagu sektore zorrotzetako pieza estrategikoetarako mekanizazio prozesu aurreratuetan, eta horri esker piezek eskatzen duten kalitatea izatea bermatzen dugu.


Punta-puntako instalazioak ditugu, doitasun eta produktibitate handiko makinez hornituak, mekanizaziorik aurreratuenak garatzeko, zeinak azken belaunaldiko egiaztapen bitartekoekin osatzen diren. Gure ekoizpen bitartekoei esker, eta baita gure langile kualifikatuei esker ere, gure bezeroen gogobetetasuna ziurtatzeko aukera izaten dugu.

Gure ekoizpen lantegiak Itziaroko industrialdean eta Mallabiako Goitondo industrialdean daude. Makina-erremintaren sektorean kokagune tradizionalak dira biak, eta kokapen bikainak dira piezen logistika errazteko, bai eta nazioarteko bezeroen bisita errazteko ere, Bilboko aireportutik 45 minutura eta Miarrizeko aireportutik ordubetera baitaude.

50
urte

baino gehiago
daramatzagu sektore
zorrotzenentzat proiektu
konplexuak kudeatzen








Danobatgruppen parte

Goimek Danobatgruppen parte da, hau da, Mondragon Korporazioak, Europako industria talderik garrantzitsuenetakoak, duen makina-erreminten dibisioaren parte.

Horrek ezagutza industrialia eta finantza kaudimena ematen dizkigu, eta horiekin etorkizuneko erronkei erantzuten jarrai dezakegu, pertsonetan eta lankidetzan oinarritutako kultura eta printzipioak abiapuntu hartuta.

Kopuruak

	 MONDRAGON	 DANOBATGROUP	 GOIMEK
Guztizko salmentak (M.€)	11.404	254	11
Lanpostuak	80.786	1.400	85

I+G+B

Goimeken lankidetzeta estua dugu Idekorekin, fabrikazio aurreratuko teknologietan espezializatutako zentro teknologikoarekin, eta aktiboki lan egiten dugu harekin, bai talentuaren transferentzian, bai gure proiektuetarako instalazio aurreratuak erabiltzen.

2.000 m2 baino gehiago, bi eraikinetan banatuta, mekanizazio prozesuak eta prozesu horiei lotutako teknologiak baliozkotzeko eta probatzeko:

- DGIH (Digital Grinding Innovation Hub).
- Robotikarako eta fabrikazio gehigarriarako espazioa.
- Laborategiak: doitasuneko, ikuskapeneko eta neurketako sistemena, prestazio handien dinamikarena, konpositeena, laserrarena eta digitala.



Mekanizazioko soluzio osoak

Balio erantsi handiko soluzioak

Goimeken esperientzia zabala dugu, eta doitasunezko mekanizazioetan eta hainbat sektoretarako mekanizazio handietan espezializatutako talde teknikoa.

Espezialistak gara hainbat piezaren tamaina eta tipologiatako mekanizazio soluzioak eskaintzen, baita material zorrotzekin egindakoak ere.

Prestakuntza handiko pertsona taldea dugu, proiektu bakoitzean ahalik eta gehien inplikaturia, eta piezen fabrikazio eta neurketa zuzena gidatzen duen ingeniarietako taldea, azken soluzioak bezeroaren eskakizunei erantzun diezaien.

Gure eskaintzan galdategiko, galdaragintzako, granailatzeko eta zurrustatzeko materialen, tratamendu termikoen eta gainazalekoen erosketaren kudeaketa integratzen dugu, eta horrek mekanizatu beharreko piezen trazabilitate perfektua eta kontrol osoa bermatzen du.

Era berean, pinturako instalazio propioa dugu, eta horri esker, piezak bezero bakoitzak eskatutako koloreekin eta egiturekin amaitzeko aukera izaten dugu.



Doitasunezko mekanizazioak

Doitasunezko mekanizazioan soluzio sorta zabala eskaintzen dugu, pieza prismatikoetarako zein biraketakoetarako.

Doitasunezko mekanizazioko gure soluzioak makina-erremintaren sektorera edo sektore aeroespazialera bideratuta daude. Sektore horietan oso perdoi zehatzak lantzen ditugu mikrarekin, eta geometria konplexuak eta material zorrotzak dituzten piezak, hala nola titanioa, aluminioa, herdoilgaitza, inconela, etab.

Esperientzia eta erreferentzia dugu aplikazio estrategikoen mekanizazioan; esate baterako, sektore aeroespazialerako erreflektore eta konpresoretan, bai eta makina-erremintaren sektoreko buru eta kontrapuntuetan ere.

Sektore horietan dugun espezializazioan oinarrituta, laguntza teknikoa eta profesionala eskaintzen dugu mekanizazio ingeniaritzan, esperientzia handiko ingeniari talde batekin, zeinak, bezeroarekin lankidetzan, piezen ekoizpenerako eta mekanizaziorako prozesuak ebaluatzen dituen eta horiek optimizatzeko soluzioak ematen dituen.




Mekanizazio handiak




Doitasunezko mekanizazio handiak egiten espezializatuta gaude. Burdinurtutik edo egitura mekaniko soldatuetatik abiatuta, akaberek dituzten mekanizazioak egiten ditugu, bai fresaketan, torneaketan eta bai artezketan.

Mekanizazio handietako gure soluzioak energia eolikoa edo makina-erremintaren sektorea bezalako sektoreetara bideratuta daude, non perdoi oso zehatzekin lan egiten dugun dimentsio handiko pieza erabakigarri eta estrukturaletan.

Horrelako sektore teknikoetan, moldagarritasunak bikaina izan behar du, une bakoitzean proiektu bakoitzaren eskakizunetara egokitzeko. Produktu seriatuak, bolumen handikoak eta entrega oso zorrotzak mekanizatzeko gaitasuna dugu.





SORALUCE

GOIMEK

90°

180°

Rotary Table DR

Azken belaunaldiko ekoizpen bitartekoak

Eragiketa bakoitza egiteko, azken belaunaldiko baliabide produktiboak eta espezializatuak ditugu, gure bezeroei beren mekanizazioetan kalitate eta zehaztasun handiena eskaintzeko.

Teknologiari aurreratuena dugu, eta baita honako makina mota hauek ere: funtzio askoko fresatzeko makinak, zutabe mugikorrekoko fresatzeko makinak, 4 eta 5 ardatzeko mekanizazio zentroak, punteatzeko-mandrinatzeko makinak, fresatzeko zubi makinak, bai eta artezteko makina lauak, zilindrikoak eta koordinatu bidezkoak ere.

Askotariko ekoizpen bitartekoak ditugunez, oso tarte zabala hartzen dugu piezaren tamainari dagokionez: 10 mm baino gutxiagoko piezen mekanizaziotik 22 metro arteko luzera duten piezen mekanizaziora.



Fresaketa– mandrinaketa

MAKINERIA

Soraluce PM -10.000	Soraluce FS -16.000
Soraluce FX -10.000	Soraluce TR -35
Soraluce FR -12.000	Toshiba -1.000
Soraluce PMG -22.000	

IBILBIDE MAXIMOAK

X: 22.000 mm
Y: 4.800 mm
Z: 3.000 mm

MATERIALAK

Altzairua	Aluminioa
Galdaketa	Herdoilgaitza



Fresaketa – torneaketa

MAKINERIA

Soraluce FS fresatzeko makina - 16.000

EZAUGARRI TEKNIKOAK


Ibiltarteak: X: 16.000 mm Y: 3.600 mm Z: 1.500 mm

Mahai errototraslantea: 3.000 x 2.500 mm

Mekanizazioa 5 ardatz jarraitutan, geometria konplexuetarako

Torneaketa bertikala: 3.000 mm W-ko Ø-ko mahai birakari traslantea: 2.000 mm.

Iraulketaren ahalmena 7 m-ko Ø-raino



Artezketa

MAKINERIA

GAINAZAL LAUK ARTEZTEKO MAKINA

Danobat RG-600

Waldrich Coburg

RTL-800

ARTEZTEKO MAKINA ZILINDRIKOAK

Danobat UG-51

Danobat UG-41

Danobat R-1500

KOORDENATUEN BIDEZ ARTEZTEKO MAKINA

Hauser 3 SM-DR

Hauser SM-DR

IBILBIDE MAXIMOAK

X: 9.000 mm

Y: 2.000 mm

Z: 700 mm

Ø 450 x 1.500 mm

MATERIALAK

Altzairua

Aluminioa

Titanioa

Galdaketa

Herdoilgaitza

Nikelaren oinarriko aleazioak



Mekanizazioa 5 ardatzetan

MAKINERIA

Hermle C40U

Hermle C42U

IBILBIDE MAXIMOAK

850 x 800 x 550 mm

MATERIALAK

Titanioa

Altzairua

Inconel

Herdoilgaitza

Aluminioa

Vespela



Metrologia

Egiaztapen zerbitzuak

Fabrikazioa bezain garrantzitsua da piezak ondoren egiaztatzea eta ziurtatzea. Horregatik, Goimeken piezak eta patrioiak edo frogatzeko tresnak egiaztatzeko zerbitzu bat eskaintzen dugu, horien ziurtagiri bat ere lortzeko aukerarekin.

Talde espezializatu eta gaitu bat dugu, azken belaunaldiko bitarteko teknologikoak baliatzen dituen, hala nola MMZ B hiru dimentsioko makina eta ZEISSen ACCURA makina.

ZEISSekin lehentasunezko lankidetzak akordio bat daukagu, eta horri esker, gure bezeroei aukera ugari eskain diezazkiekegu neurketa eta egiaztapen gaitasunei dagokienez.

CMM ZEISS:

- MMZB (X:2000; Y:5000; Z:1500)
- Zeiss Accura (X:1200; Y:3000; Z:1000)
- Zeiss Prismoa 4. ardatzekin
- Laser tracker faroa
- Egiaztapen eta kontrol ekipak



Kalitatea eta zerbitzu integrala

Goimeken zorrotz kontrolatzen dugu mekanizazio fase bakoitza, eta hori indartu egiten da metrologiako taldeak fabrikatutako pieza bakoitzean egindako egiaztapen eta neurketa sakonen bidez, bai eta gure makinaren mekanizazio eta doitasun gaitasunak egoera ezin hobean mantentzeko egindako aldizkako jarduketan bidez ere.

Gure bezeroen partner estrategikoa gara. Bezeroek guran konfiantza dute, prozesu osoan lagun diezaiegun, beren piezak mekanizatzekeo prozesurik eta emaitzarik onenak bermatzeko.

EN 9100, ISO 9001, ISO 14001 eta ISO 45001 ziurtagiriak ditugu, bai eta zerbitzu integrala, ekoizpen baliabide aurreratuak eta azken belaunaldiko neurketa bitartekoak ere, eta horiei esker soluzio pertsonalizatuak, eskakizun handikoak eta ahalik eta doitasun handienekoak eskain ditzakegu.

HONAKO ZIURTAGIRI HAUEK DITUGU:

EN 9100

ISO 14001

ISO 45001

ISO 9001





Laguntza tekniko, diseinu fasean

Bezeroari laguntza ematen diogu bere diseinuen fabrikagarritasuna optimiza dezan eta, horrela, soluzio eraginkorra eta lehiakorrena aurkitu dezan.



Ingeniaritza konkurrentea

Gure berme nagusia, hain zuzen, eskakizun handiko hainbat sektoretan landutako doitasunezko mekanizazioko *know-how*a da.



Materialen erosketaren kudeaketa

Geu arduratzen gara erabiliko ditugun materialen erosketaren kudeaketa. Titanioa, nikel aleazioak, herdoilgaitzak eta aluminioak dira, besteak beste, material horiek.



Mekanizazioa, planoaren eta eskakizun teknikoaren arabera

Ideiak ageriko soluzio bihurtzen ditugu. Bezeroen planoetatik abiatuta, proiektu eta produktu bakoitzaren eskakizunen arabera garatzen dugu zerbitzua.



Tratamendu termikoa eta gainazalekoa

Gure zerbitzu integralaren barruan, tratamendu termikoak eta gainazalekoak kudeatzen ditugu (Alodine 1200, Surtec 650, anodizatuak, Gold plate, Astroblack, etab.).



Egiaztapen zerbitzua

Gure metrologia lantaldeari esker, mekanizazio fase bakoitza zorrotz kontrolatzeko gai gara. Langile kualifikatuen talde hori arduratzen da beharrezko egiaztapenak eta neurketak egiteaz. Nagusiki Zeissekin lankidetzan arituta, aukera zabala eskaintzen dugu.



Kalifikazioa eta bermea

Bikaintasunarekin dugun konpromisoarekin bat etorritik, plantillaren %10 kalitate departamentukoa da, eta ehuneko hori oso handia da mekanizazio enpresa batentzat.

Goimek

Itziar Industrialdea, 2. Partzela · P.O. Box 5 - Deba (Gipuzkoa) - Spain

+34 943 60 63 15

www.goimek.com

DANOBATGROUP

